

«ETA'ren AURPEGIA»

Izen ori daramaki, Madrid'ko Jaur-laritzak enbajadategien bidez mundu guztiko Jaur-laritzei bidalia izeteko egin duen «bideo» batek. Nik ez dut bideo ori ikusi. Enbajalariak izen ezik ez bait du beste iñork ikusi. Bañan, alare, iritxi da izparringilariengana eta, auen bitartez, politik'alderdietara. Ta, asko-edo-gutxi, PP'tarrek ez gaitzerako guztiek gaitzetsi dute Madrid'ko Jaur-laritzaren jardun-keta berri au.

Ez zaie arrazoirik falta. Izen ere, bideo-jolasketa ori, ETA bezalako taldeentzat egokia goa bait da Laterri aundi baten Jaur-laritzaren batentzat beño.

ETA ez baño Euskalerrria omen da bideo orrek gaizki uzten duena, Euskalerrri guztia ETA besterik ez ba'ltz bezala agertzen duelako.

Ortik, izugarritzko gaitzak etorri lezaizkioke Euskalerrriari, lau Pro-bintzietako ekonomia ain zoriontsu eta ain egoki aurrera ta goruntz dijon une ontantxe; erbestetik datozkigun kapital mardulak, eta Euskalerritik erbesterako salketa gero-ta-aundiagoak, erabat eragozi dezakeelako.

Zentzu ortan, ederki, —eta gogor!—, mintzatu da Arrosa Díez Andrea Gazteiz'ko Jaur-laritzako industri-ministro sozialista.

Eta, gaitz guztiak askoz min-garriagoak gertatzen bait zaizkigu gu geron larrua bereiziki ukitzen dutenean, —Naparroa'n eta beste iru Pro-bintzietan bizi den jendetza kontuan artuz, beste iru Pro-bintzietan aña gaitz, edo geiago, egin bait du ETA'k Naparroa'n pentsa dezagun, bideo orren antzeko beste bat agertzen zaigula biar izen onekin:



«ETA Naparraren Aurpegia».

Naparroa bideo ortan osoki ETA-lur biurturik ikustean, eta ortik Naparroa'ri etorriko zaizkion gaitzak usmatzean, ¿nolako ez ote litzake izengo napar zintzo guztien asarrea?

Madrid'ko Jaur-laritzaren bideo ori kapitalistentzat ez baña munduko Jaur-laritzentzat izen dela egiña? A, bai? ¿Bañan bai ote da ordea iñor munduan, kapitalista batek atzerrian milloikako dirutza ipiñi aurretik bere Jaur-laritzarekin itzegingo ez duela ta bearrezkoak dituen ziurtasunak eskatuko ez dituela uste duenik?

ETA'k ere badu bere bideo bat, azkeneko auteskundeetarako egin zuena.

Ongi egiña omen dago, ikusi duten izparringilariak diotenez. Ta, ala egiña izengo da, bestela ez bait

zuen Madrid'ko Jaur-laritzak bideo orren aurka alako borrokarik egin-go.

ETA'k errez zabaldu dezake bere bideo ori enbajadategietara. Ori egitea, ordea, alper-alperrik dirua gastatzea izengo litzake, Madrid'ko Jaur-laritzaren bideo-gintza ere alperrikako dirugastatzea izen den bezala.

Ori zergatik? Enbajalariak, eta auen bidez munduko Jaur-laritzak, ETA zer den ederki, arras ederki, ta bearbada Madrid'ko Jaur-laritzaren eta ETA berberak bezain ongi —edo obeki!— ezagutzen dutelako. Ez zuten beraz Madrid'ko bideo orren bearrik. Orregatik, bideo orrek ez dio ETA'ri gaitzik egin; leendik ere enbajadategi ta Jaur-laritzetan ongi ezaguna bait zen.

Gaitza, bideo orrek, Euskalerrriari egin dio.

Euskalerrriari gaitz egiteko, ordea, ez dugu Madrid'ko Jaur-laritzaren bideo bearrik.

Euskalerrriari gaitz egiteko, ETA bera naikoa ta geiegi ere badugu.

Latiegi'tar Bixente

Aingeru Epaltzak 1997.ko Euskadi Saria irabazi du

Aurtengo Euskadi Saria, iru miloi pesetakoa «Tigre Ehizan» nobelarendako izan da.

Aingeru Epaltza, nafar idazleak jaso du sari au. Diru aue-tatik, miloi erdi bat nazioarteko bilduma egiteko eta bertze miloi erdia bertze izkuntza batera itzultzeko erabiliko dira.

Euskadi sari, 1982 urtean asi zen banatzen; eta aurtengo epai maian pertsona auek ziren; Karlos Otegi, Lourdes Otaegi, Igone Etxebarria, Txaro Borda eta Roman Berriozabal. Aurkeztutako obrak 16 izan dira.

Karlos Otegik zionez, «Kon-takizunaren lotze neurrikoa» eta «narrazio orekutsua» nabarmentzen direla sinbolikotasuna eta magikotasuna diren lan one-tan.

Aingeru Epaltzarekin izan gara galdera batzuen erantzunaren bila:

—Noiz asi zinen idazten?


—*Gazte Gaztetik, bainan literatura serio-ski, 23 urtetan.*

—Zein genero literario idazten duzu?

—*Plazaratu zintzen, «Mugetan irri» antzerki obrarekin. Obra au Iruñako Ortzadar taldeak antzeztu zuen, 1984 urtean. Gero, Iruñako udalaren nobela saria irabazi nuen: «Sasiak begiak baditik». Gero «Lur zabaletan» narrazio motzen liburua haur gazteendako idatzia. Gero «Ur Uherrak». Au erdarara itzulia dago.*

—Eta orain, «Tigre ehizan». Zer kontatzen duzu emen?

—*Erbesteko historia bat da, Laburdin eta Venezuelen gertatutako abentura, baina sinbolikoa. Bi pertsonai, aita eta semea bakoitza bere aldetik, eta elkarrengatik urrun daudela, bere tigrea arrapatzea atera bear*



Aingeru Epaltzak.

dira.

—Eta nondik ateratzen duzu ainbertze denbora?

—*Gorriak eta beltzak ikusiz, arratsaldetan, gauetan, lanak eta gainerako aferak eta familiak uzten didaten denboran.*

—Zer zuposatzen du sari au zuretzako?

—*Sari onetara bertzeek presentatzen dute zure obra, onetan orain arte egin dudan lanaren aitortze bat da, nire lana balioa duelakoa.*

Sari aunitz geiago lortu dezan opa diot Aingeru Epaltzari.

Xole Erbiti

Berri Ona

Egiazko sinismena

«Maisu, ikus dezadala berriro»
(Mk 10, 46-52)

Jesus Jerusalem bidean doa (Mk 8,27; 9,34), eta an emango du bere bizia gizon-emakume guztien alde. Gurutzean izango duen jokaera bera du emen Jesusak Jerikoko itsuarekin: Jesusak deitu, maitasunez itzein eta ikusmena eman dio. Jesus beartsuak eta eziñean aurkitzen direnak laguntzera etorria da, eta gizon-emakumeak barne eraberritzeko aalmena badu.

Itsu onek Jesusekin arremanan agertu duen bere sinismena, ederra eta bete-betekoa da: «Dabiden seme, Jes: s, erruki zakizkit». «Maisu, ikus dezadala berriro». «Eta atzetik zijoakion bidean». Itsu onek badaki bere sinismena otoiitzean aitortzen; eta Jesusi jarraitzeko kemezez betetzen duen sinismena du. Jesusi bidean jarraituz, gurutzean doa Arekin. Baña Jesusekin izan duen bizkizunak lilluratu dauka. Ez du geiago Jesusengandik urrun bizi nai.

Oraindik orain, Joan Paulo II-ak jende guztia arriturik utzia du, millaka eta millaka gazte Parisen biltzeko esku egokia izan duelako. Nondik eta nola orrelako indar berezia gure Aita Santu onek? Gazteei itzegitean, ez die gauza arrigarriak esaten. Geientsuenetan gauza berak: «Mundu berri bat eraikitzeke lan egin bear duzue; zuen eskuetan dago munduraren etorkizuna; gizartetik indarkeria uxatzeko baduzue non lan egin; gure gizarte au adiskidetasunean eta elkarmaitasunean oiñarritzen egin zuen aalegiñak». Eta orrelako eginkizunaren aurrean gazteen biotzak sutzen dituenen, orduan Jesukristoren argia eta indarra gogoratzen die: «Ez beldurtu; izan biotz: Jesukristo da munduraren argia eta egiazko askatasuna. Onar ezazue. Jarrai ezaiozue!».

Eukaristian egi biurtzen dugu itzuaren eta Jesusen arteko arremana: asieran, Bartimeo itsuak bezala esaten diogu gure artean dugun Jesukristori: «Erruki, Jauna»: pekatari geranok salbamenaren bearra ezagutzen dugu. Gero, Bibliako irakurgaietan mintzatzen zaigu Kristo: «Zer nai duzu, Nik zuri egitea?». Jaunartzerakoan, Kristoren bizi berria eta argia jasotzen ditugu. Eta guzti ori, Jaunari «bidean jarraitu» aal izateko.

«Ar ezazu Kristo, ar ezazu ikusmena, ar ezazu argia, Jainkoa eta gizakia sakonki ezagun ditzazun» (Alejandria-ko Klemente).

A. Apaolaza

Euskalerrriko Sinodoa noizko?

doaren kidei buruz. Sinodoa nola gertu ere erraten zaigu, baita bertze xeetasun anitz ematen.

Sinodoari buruz berria da Erroma'ko Eliz-agintariak urte onetan egingadiko idazkia (1997). Indar aundiko lana dela ezin ukatu. Gotzaiak daukan itzala goi-aipatua gelditzen da.

Idazki ori, usaia artzen diogula «juridiko» kutsua daukala erranen nuke. Ez da naiko pastoralak. Gertatu ditezke jokabide zallak eta kristau soilak agertu dezakete iritzi aberatsak eta, naita ez, Sinodoan itzal aundia euki dezakete. Adibidez, lekuko gotzaia izan leike gatzik gabeko gizona ta berriaren usarik gabekoa, beste aldetik arkitu ditzazkegu kristau soilak anaiartean uste ona zabaltzen dutenak, denak lanean jartzen dakitenak iñor baztertu gabe ta gaurko sinismenaren ezarekin miña artzen dutenak eta arpegia emateko zai daudenak. Bide ortik jotzeko ba dute aukera, batez ere egunkariak eta iratiak. Ortxen daude irikiak Sinodoaren jokabidea urrutiti joan ditekete. Jainkoaren erria agertuko da nunbaitetik. Gotzaia bera bakarrik ez da Eliza. Gotzaia lekuko Elizaren buru da.

Idazki orretan, beste gaia aipatua ez dena: bertako izkuntz berezia nola ibilli elizbarrutian eta

elizbatzarretan. Gai au aipatua izan bear luke. Sinodoak ematen dio lekuko izkuntzari agiria ta indarra. Izkuntza erabiliaz Sinodoak bultzada ederra eman lezaioke bertako izkuntzari. Gure aldetik bertako izkuntzaren alde lana egiten beti iraun.

Ain garrantzi aundiko gai oneri buruz euskaraz daukat argitaratua liburua bat (Euskalerrriko Sinodoa, Lazkao 1984). 108 orrialde ditu. Oso gutxi artu dute eskuetan.

Gai oneri buruz egiña liburu bakana da, euskaraz idatzia ta naiko mamitsua.

Elizaren arauak, amar urteetik bein egin bear direla Elizbarrutiko Sinodoak dio. Beste aldetik ba ditugu gure artean elizbarrutiak aztu dutenak agindu au. Gogoan daukagun ori, besteak bezala 1949'garren urtean eraikia izan zen. Ba du lo zorrotik esnatzeko garaia. Beste jokabide jator bat bear litzake gure artean. Elizaren maitasuna ekintza jatorrak aitortzen du.

Bide zuzena artu du bai Soria'ko gotzai gazteak, Franzisko Perez jaunak. Ala dio: «Soria'ko Elizaren berritzeak zer ikusi aundia dauka Elizbarrutiko Sinodoarekin».

Gure galdera berriz auxe da: «Noizko Euskalerrriko Sinodoa?». Latxaga